

GIG 07

ONDARBELTZ MEGAGERUZA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lapari hondartzako itsaslabarraren zatirik handienean, arroka-zati ilunez osaturiko multzo desordenatu bat dago. Megageruza horrek 12 metrotik 20 metrora bitarteko lodiera du, eta 3 kilometrotik gorako luzera, eta hareharrizko eta lutitazko blokez osatuta dago; bloke handiak dira (badira 3 m-koak ere), eta desordenatuta daude, gorantz gero eta oparoagoa den lutitazko matrize baten barruan. Halaber, higadura-oinazpia nahiko garbi hautematen da, eta pikor-mailaketa positiboa dela. Klasto asko tolestuta daude, 180°-tik gorako tolesak ere izanik.

Metakin hori dentsitate handiko grabitazio-irristatzea dela esan daiteke, higakin-kolada motakoa: arroaren hondoan jada metatutako materialak ezegonkortu eta ezpondan behera irristatzen dira. Erortzean, kontsolidatu gabeko materialak ordenarik gabe tolesten dira, eta material zurrunagoak, berriz, zartatu eta hondarrezko dike txikiz betetzen dira. Material lodiena metatutakoan, lutitarik finenak unitatearen gainaldean sedimentatzen dira, grabitatearen ondoriozko dekantazioz.

Ezaugarri sedimentarioei erreparatuta, metakin hau *seismita* bat dela esan daiteke, lurrikara handi batean izan baitezake jatorria.

NOLA BERTARATU

Debako Lapari hondartzara jaitsi behar da, eskaileretatik.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Lapariko Ondarbeltz megageruzaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 552826 m / Y= 4794192 m / Alt.= 8 m



Megageruzako noduluak eta tolestutako klasto bat, gertutik ikusita.